

University Educators for Sustainable Development (UE4SD) – prentsa-oharra

Etorkizunari begirako goi-mailako irakaskuntza mundu hobe bat lortzeko

Hezkuntza-ekimen berri batek goitik behera aldatu nahi du unibertsitatean nola irakasten eta ikasten den ikasleak gero eta handiagoak diren desberdintasun sozial, ekonomiko eta ingurumenekoei aurre egiteko beharrezko trebetasunetan prestatze aldera.

University Educators for Sustainable Development (UE4SD) proiektuak Europako eta haragoko 33 herrialdetako 55 kide biltzen ditu (gehienak unibertsitateak), eta goi-mailako irakaskuntzako ikasketa-planen inguruan berriz hausnartzea du helburu, garapen iraunkorrari heltzeko. Proiektuak 3 urte iraungo du eta Europako Batzordeak finantzatuko du, Lifelong Learning programaren barruan (Erasmus Academic Networks azpiprograma). Proiektuak garapen iraunkorrerako hezkuntza eta, oro har, goi-mailako irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko nahia lotzean jarriko du arreta. UE4SD proiektuak praktika akademikoa eta ikasketa-planak berriro nahi ditu, unibertsitateko hezitzaileentzat garapen iraunkorrerako hezkuntzari lotutako gaitasun profesionalak eta lidergo akademikoko gaitasunak garatzeko aukerak sortuta. Bestela esanda, unibertsitateko irakasleei laguntzean datza; hartara, irakasleak gai izango dira edozein ikasketa-arlotako eta espezializaziotako ikasleei irakasteko zer erantzukizun profesional dituzten iraunkortasunaren arloan eta nola bete ditzaketen erantzukizun horiek. Amaitzeko, goi-mailako irakaskuntza bideratzen lagundu nahi du, etorkizunari arreta handiagoa eskain diezaion eta mundu hobe bat eraikitzen laguntzeko gai izan dadin.

Proiektuaren arretagunea berritzailea da, ez baitakigu asko nola babesten eta garatzen diren unibertsitateko hezitzaileen garapen iraunkorrerako hezkuntzari lotutako gaitasunak. Oztopo hori gaingintzeko, proiektuko kideek azterlan funtsatua egingo dute herrialdeetan eta eskualdeetan garapen iraunkorrerako hezkuntzari dagokionez garapen profesionalerako zer aukera dauden ikusteko eta aztertzeko. Informazioa modu sistematikoan bilduta, Europako azpi-eskualdeei buruzko lau txosten eta kide diren 33 herrialdeetako egungo egoerari buruzko txosten bat prestatuko dira. Praktika nagusia zein den identifikatuko da eta, hori oinarritzat hartuta, baliabideen lineako plataforma jarriko da martxan. Proiektuko baliabideek goi-mailako irakaskuntzan garapen iraunkorrerako hezkuntza landuko duen akademia bat bultzatuko dute, goi-mailako irakaskuntzako erakundeei garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta garapen profesionalaren arloan aldaketa-programak ezartzen laguntzea helburu izango duena.

UE4SD proiektuko jarduerak lotura estua dute COPERNICUS Alliance sarearekin (garapen iraunkorrerako goi-mailako irakaskuntzari buruzko Europako sarea) eta Goi-mailako Irakaskuntzari buruzko Rio+20 hitzarmenarekin (2012ko ekainean aurkeztu zen, Rio de Janeiron, Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen konferentzian). Proiektuaren aitzindaria Gloucestershireko Unibertsitatea da (Erresuma Batua) eta hiru kide nagusirekin hertsiki lanean dihardu: Madrilgo Unibertsitate Autonomoa (Espainia), Karlos Unibertsitatea (Txekiar Errepublika) eta Lüneburgeko Leuphana Unibertsitatea (Alemania). [Partner name] UE4SD proiektuko kidea da eta beste erakunde kide batzuekin esperientzia profesionalak partekatu eta alderatuko ditu, ikasketa-planen iraunkortasunerako aldaketa garapen iraunkorrerako hezkuntzarako gaitasunetan arreta jarrita eragiteko asmoz.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Helbide elektronikoa: ue4sd@glos.ac.uk

Webgunea: <http://www.ue4sd.eu>